

ORDENANTZA FISKALA, ZAINZA BEREZIKO ZERBITZUAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

9. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluko 7. Atalean xedatutakoari jarraituz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea honako zerbitzu hauek eman edo administrazio-jarduera hauek egitea da:

a) Ibilgailu handiak hirian barna gidatu, zaindu eta laguntzeko zerbitzua. Xede horretarako, garraio astuntzat jotzen dira haien masek, tamainek edo zoladuran egiten duten presioa araukoak gainditzeagatik Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorraren 14. artikulua aipatzen duen baimen berezia behar dutenak.

b) Hiriko zirkulazioa erregulatu eta kontrolatzeko jarduera bereziak, ibilgailuen zirkulazioa errazte aldera, jarduera horiek Udaltzaingoak zirkulazioa seinaleztatu eta antolatzeke egin ohi dituenak ez badira.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Zergak ordaintzeko betebeharra tasaren xedea den zaintza berezirako baimena noiz eman eta une horretan bertan sortzen da.

Subjektu pasiboa

4. artikulua.- Tasa hau ordaintzeko betebeharrak solidarioak dute garraioa zein ibilgailuk egin eta haren jabeak diren pertsona natural edo juridikoen, edo zerbitzu hori eman dadin eskatzen dutenek.

5. artikulua.- Zaintza bereziko zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasak zerbitzuan egindako denbora eta erabilitako baliabideen arabera ezarriko dira, Ordenantza honen Eranskineko tarifekin bat.

Kudeaketa-arauak

6. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan jarritako eskudirutako kutxan ordaintzen ahalko dira.

TARIFA-ERANSKINA

I.- TRAFIKOA ERREGULATZEKO JARDUERA BEREZIAK	Ordu edo zatiki bateko prezioa
- Esku hartu behar duen udaltzain bakoitzeko	31,75 euro
- Erabili beharreko patruila-auto bakoitzeko	4,05 euro
- Erabili beharreko moto bakoitzeko	3,55 euro
II.- GARRAIO HANDIAK ZAINTEKO ZERBITZUAK	
- Ordu edo horren zatiki bakoitzeko	162,30 euro.